

ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, NAFARROAKO PARKE EOLIKOETARAKO BAIMENA ARAUTZEN DUEN MAIATZAREN 8KO 56/2019 FORU DEKRETUA ALDATZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA EGITEKO.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133 artikulua haxe ezartzen du: “1. *Lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta hori sustatu beharko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bitartez; eta bertan jasoko da zer iritzi duten datorren arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkartasun handieneko erakundeek puntu hauei buruz:*

- a) *Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.*
- b) *Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.*
- c) *Arauaren helburuak.*
- d) *Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak)”.*

Aurrekoa betetzeko, dokumentu hau egiten da Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzeko, aldez aurreko kontsulta publiko gauzatzeko Nafarroako parke eolikoetarako baimena arautzen duen maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretuaren proiektua egiteari buruz.

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Nafarroako parke eolikoetarako baimena arautzen duen maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretua da arlo horretan indarrean dagoen esparru juridikoa. Arau horrek Parke eolikoaren ezarpena arautzen duen otsailaren 26ko 125/1996 Foru Dekretua indargabetzen du, besteak beste.

56/2019 Foru Dekretuaren 1. artikulua araberan, hauexek dira horren xedek:

- a) *Nafarroan energia eolikoaz baliatuta energia elektrikoa ekoizteko jarduera sustatzea.*
- b) *Nafarroan dauden parke eolikoak eta haiekin lotutako instalazioak, energia eramatekoak, baimentzeko prozedurak arautzea.*
- c) *Koordinatzea, batetik, ingurumen ebaluaziorako prozedurak, arlo horretako legeria indardunean ezarritakoak, eta lurzoru urbanizaezineko jarduera baimengarriak baimentzekoak, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari dagokien legeria indardunean araututakoak, eta, bestetik, b) letran aipatzen diren instalazioen administrazio baimenerako prozedurak.*

Ildo horretan, Nafarroan parke eolikoak ezartzeko beharrezkoak diren administrazio-izapideen erregulazio berria ezartzen du. Lurraldearen ikuspegitik, foru dekretu horren berritasun nagusia izan da udalez gaindiko proiektu sektorialaren (UPrS) aldez aurreko onespina kentzea, beharrezkoa zena 125/1996 Foru Dekretuaren arabera. 2019ko foru dekretu berria indarrean sartu zenetik, nahikoa da lurzoru urbanizaezinean baimentzen ahal diren jardueretarako baimena lortzea.

Egoera berri horren aurrean, 56/2019 Foru Dekretuan lehenengo xedapen indargabetzailea sartu zen 125/1996 Foru Dekretuaren arabera onetsitako UPrS guztiak azkentzeko, ez baitziren bateragarriak esparru juridiko berriarekin. Era berean, osorik edo zati batean gauzatu gabe zeuden parke eolikoaren kasuan, xedatu zen lurzoru urbanizaezinean baimentzen ahal diren jardueretarako baimenek ordezkartuko zituztela eskubide osoz.

Az kentze hori uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 46.2 artikuluan ezarritako legezko gaikuntzaren babespean zegoen (1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina –LAHFLT– onesten

duena). Horren arabera, Nafarroako Gobernuak erabaki dezake udalez gaindiko proiektu sektorial bat azkentzea, baldin eta proiektuaren exekuzioa amaitu bada eta haren helburua bete bada.

Hala ere, ikusi da 56/2019 Foru Dekretuaren lehen xedapen indargabetzailearen edukia hobeki egokitu behar dela LAHFLTBak UPrSak azkentzeari buruz ezarritakora; izan ere, osorik edo zati batean gauzatu ez diren UPrSei eraginen die, eta xedapen indargabetzaile horretan jasotako azkentze-deklaraziotik kanpo geratuko dira.

Bestalde, aztertuko da ea komeni den aldaketak egitea dagoeneko baimenduta dauden parke eolikoek aldaketei buruzko xedapenetan, argiago zehazteko nola egin behar den aldaketa horiek hirigintzako foru-baimenaren mende jartzeko.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

Indarrean dagoen Foru Dekretuaren aldaketa puntuala arlo horretan indarrean dagoen araudia modu egokiagoan harmonizatzeko beharrak eragin du, desadostasun batzuk ikusi baitira, eta horrek zaildu egiten du araudia behar bezala interpretatzea eta aplikatzea. Araudi hori, funtsean, 56/2019 Foru Dekretuak eta LAHFLTBak osatzen dute.

Azaldutakoa ikusita, egingarritzat jotzen da une honetan 56/2019 Foru Dekretua aldatuko duen Foru Dekretuaren proiektua egiteko prozedura hastea, dokumentu honetan adierazten diren helburuei erantzuteko.

c) Arauaren helburuak.

Hauek dira arauaren helburuak:

1) Maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen indargabetzailea aldatzea, osorik edo zati batean gauzatu ez diren UPrSak dekretu horretan jasotako azkentze-adierazpenetik kanpo uzteko.

2) 56/2019 Foru Dekretuaren 21.2 eta 22.2 artikulua aldatzea, eta argiago zehaztea parke eolikoek aldaketak hirigintzako foru-baimenaren mende daudela.

d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk.

Uste da ez dagoela foru dekretu mailako arau baten onesteaz bestelako aukera arauemailerik; Nafarroako parke eolikoetarako baimena arautzen duen maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretua aldatuko du foru dekretu berriak.